

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4391

IRAGARKIA, 2025eko urriaren 6koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Arabako lurralde-ordezkarirena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Zalduondo, Donemiliaga eta Asparrenako udalerrietan «Igorita» (2,5 MW) eguzki-planta fotovoltaikoa eta hari lotutako azpiegiturak eraikitzeko aurretiazko administrazio-baimenaren eta administrazio-baimenaren eskaerak.

48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, jendaurrean jartzen dira «Igorita» (2,5 MW) instalazio fotovoltaikoaren eta hari lotutako azpiegituren proiektuak.

Espedientea 01-GE-Y-2023-00036

- Eskatzailea: Perfect Business Location, SL.
- Xedea: energia elektrikoa sortzea.
- Eskaeraren helburua: aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitzeko aurretiazko administrazio-baimena.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Zalduondo, Donemiliaga eta Asparrena.
- «Igorita» proiektua:
 - Eguzki-instalazioak 570Wp-eko 5.480 modulu eta 250 kW-ko 10 inbertsore fotovoltaiko ditu. Guztira 2,5 MWn-ko potentzia du.
 - 3.150 kVA-ko transformadorea duen transformazio-zentrua.
 - Transformazio-zentrotik sekzionamendu-zentroaren sarrerainoko lurpeko ebakuazio-linea 1.289,75 m-ko luzerakoa.
- Husteko puntua: sortutako energia husteko puntua linea Alsasua-Gamarra 1 da 30 kV-ekoa eta Alsasua Teakoa (30 kV), 88. euskarrian.
- Eguzki-instalazioak hartzen duen azalera: 3,44 ha.
- Aurrekontua (bezik gabe): 1.819.954,76 euro.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Arabako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dio proiektu honi alde aurreko eta eraikitzeko administrazio-baimenak, eta horretarako jendaurrean jarri behar da. Proiektu honi ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin zitzaion.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek proiektuaren gaineko dokumentazioa azter dezaten 20 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego

2025eko urriaren 17a, ostirala

kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/ Energia ataleko proiektuaren jendurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaur-lar-iza/energia-meategiak/hasiera/>), eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 6a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Arabako lurralde-ordezkar-ia,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.